

1. ERANSKINA

LETREN FAKULTATEKO GRALaren EZAUGARRIAK¹

Gratu amaierako lanak garatu eta idazteko, ikaslea ondoko irizpideak betetzen ahaleginduko da eta horretako, lanaren zuzendariaren laguntza izango du:

- a) UPV/EHUren **erakunde irudia** (<https://www.ehu.eus/eu/web/letren-fakultatea/irudi-korporatiboa>) eta **EHU tipografia** (<https://www.ehu.eus/eu/web/gizartea/ehu-tipografia>) erabiltzea, erakundearen irudi baitira.
- b) **Hizkera inklusiboa** erabiltzea, eta **generoren ikuspegia** txertatzea gizakiekin zerikusia daukaten lanetan.
- c) **Ondorio etikoak dituzten lanak**. Gizakiekin, haien datuekin eta laginekin, animaliekin, edo agente biologikoekin edo genetikoki eraldatutako organismoekin ikerketa jardueraren bat egitea eskatzen duten lanen kasuan, tutoreak, lana mota horretakoa dela behin identifikatuta, ikasleari lagunduko dio baloratzen ondorio etikoen garrantzia, eta azalduko dio nola bete behar dituen lan akademietarako indarrean dauden jarraibide espezifikoak, UPV/EHUren ikerketa eta irakaskuntzaren arloko Etika Batzordearen webgunean argitaratuak.

Aipatutako kasu horietan, UPV/EHUren ikerketa eta irakaskuntzaren arloko Etika Batzordearen jarraibideetan aipatzen diren **dokumentuak** aurkeztu beharko ditu ikasleak, GRALa defendatzeko gainerako dokumentuekin batera. Alderdi hori arreta bereziz gainbegiratu beharko du tutoreak. Etika Zerbitzuak, bere aldetik, jarraibideak eta prozedurak etengabe hobetzen direla zainduko du, estandar etikoak betetzea errazteko eta betetze horren justifikazioa ahalik eta arinen egiteko.

Egindako beste jarduera akademiko batzuetatik (praktikak, prestakuntza duala, etab.) eratorritako informazioa bigarren mailan erabiltzen duten lanen kasuan, 8. artikuluan xedatutakoa bete beharko da, informazioa anonimoa

¹ Baliteke formatu jakin bateko GRALek estilo arau hauek ez onartzea; horrelakoetan, ezaugarri hori zehaztu eta justifikatu beharko da GRALean bertan, baita zuzendariaren ebaluazio txostenean ere.

izan dadin eta inplikaturako pertsonak identifikatu ezingo direla bermatu dadin; baina ez da dokumentu gehiago aurkeztu behar. Hala ere, GRALean berriaz aipatu behar da zein den informazioaren iturria eta zer egin den anonimotasuna bermatzeko. Alde horiek arreta bereziz gainbegiratu behar ditututoreak.

Ondorio etikoak dituzten lanen **defentsan, epaimahaiak** ebaluatuko du bete diren lan akademikoetarako indarrean dauden jarraibide etiko espezifikokoak. Izan ere, ondorio etikoak ezagutzea eta jarraibideak betetzea zeharkako gaitasunak dira, ikerketa jarduerari ekiteko aukera ematen duten lanetan frogatu beharrekoak.

GRALaren EGITURA ETA FORMATUA

Edozein testu akademikok bezala, GRALak ondo antolatua eta zuzen idatzia egon behar du, eta formatu jakin bat bete behar du, edukiak era argi eta koherentean aurkeztu ahal izateko.

1. GRALaren EGITURA

GRALak honako atal hauek izan behar ditu nahitaez, behean adierazita dagoen ordenan:

- a) **Azala**, honako hauek barne dituela:
 - Gradu Amaierako Lanaren egilea den ikaslearen izena
 - Gradua
 - Ikasturtea
 - Gradu Amaierako Lanaren izenburua (idatzitako hizkuntzan)
 - Zuzendariaren izena
 - Zuzendariaren saila/jakintza arloa
- b) Gradu Amaierako Lanaren **laburpena** (300-500 hitz)
- c) **GJHei buruzko hausnarketa**: Gutxienez 200 hitzeko testu bat, GRALak Garapen Jasangarrirako Helburuekin zer nolako lotura duen aztertzen duena eta/edo helburu horiei dagokienez ikuspegi kritikoa planteatzen duena. UPV/EHUK ardaztat dituen GJHen gaineko informazio gehiago jasotzeko, kontsultatu EHUagenda 2030 webgunea:

<https://www.ehu.eus/eu/web/iraunkortasuna/ehuagenda-2030>.

- d) **Aurkibidea.**
- e) **Hitzaurrea**, bertan azalduta helburuak, metodologia, gaia aukeratzeko arrazoiak, gaiaren egoeraren azalpen laburra eta/edo egokitzat jotzen diren beste gai batzuk.
- f) Lanaren muina osatzen duten **atal** eta **azpiatalak**.
- g) **Ondorioen atala**, gaiaren inguruko hausnarketa eta egindako ekarpenak aurkezten dituen; bertan jaso daitezke bestelako kontuak ere, hala nola lana egitean sortu diren zailtasunak edota garatu ezin izan diren alderdiak.
- h) **Bibliografia**, lanean AIPATU diren baliabide eta iturri guztiak adierazita.
- i) **Eranskinak**, halakorik balego.

2. GRALen ezaugarri formalak

- a) Luzera 50.000 eta 60.000 karaktere bitartekoa izango da, oharrak eta bibliografia kontuan hartuta.
- b) Gomendatutako formatua eta tipografia ²:
 - Komeni da EHU tipografia erabiltzea: EHU Sans 11 gaztelaniaz sortutako testuan, eta EHU Serif 11 euskaraz sortutakoan. Iturri tipografikoak hemen deskarga daitezke:
<https://www.ehu.eus/eu/web/gizartea/ehu-tipografia>.
 - Lerroarte: 1.5
 - Gradu Amaierako Lanaren laburpena (300-500 hitz)
 - Eskuinean eta ezkerrean justifikatutako testua
 - Paragrafoen artean 6 puntuko lerroarte, aurretik eta ondoren; eta/edo koska paragrafo bakoitzeko lehen lerroan, paragrafoak argi bereizita egon daitezzen.
 - Orrialdeak hurrenez hurren zenbatuko dira, orrialdearen eskuineko beheko aldean. Ez zaie zenbakirik jarri behar ez azalari, ez laburpenari, ez GJHei buruzko hausnarketa duen orriari.
 - Oinaldeko oharrak; zenbaki arabiarrekin. Komeni da EHU Sans 9 letra

² Beste formatu edo tipografia batzuk erabil daitezke, baldin eta argiak, bakunak eta testu akademiko baterako egokiak badira.

erabiltzea gaztelaniaz sortutako testuan, eta EHU Serif 9 erabiltzea euskaraz dagoenean.

- Irudiak eta koadroak: testuan txertatuko dira, dagokien tokian; eta zenbakiak eta izenburu egokiak jarriko zaizkie. Aipatu behar da zein iturritatik hartuak diren.
- c) Bibliografia, berriz, lanaren amaieran jarri beharko da, alfabetikoki ordenatuta. **Soil soilik** lanean zehar aipatutako izenburuak jasoko dira. Bibliografia-erreferentziaren formaturako, bestalde, hainbat tradizio baliatu daitezke; nolana ere, aukeratutako irizpideari eutsi beharko zaio lan osoan zehar.

Testuaren mamian erabilitako letra baino txikiagoa erabil daitezke, edota koska frantsesa.

Ahal denean, komeni da erreferentzia bibliografikoetan egileen izenak oso-oso-oso ematea, ez soilik inizialak. Horrela, ikusgaitasuna emango zaie emakumezko ikertzaileei.

Letren Fakultateko GRALen arautegia eta egutegia hemen daude eskuragarri:
<https://www.ehu.eus/eu/web/letren-fakultatea/gradu-amaierako-lana>